

Egun on. Pertsonen eskubideak defendatzeko Eusko Legebiltzarreko goi-komisarioa den Ararteko erakundea oso pozik dago parlamentu-izaera daukaten eta Espainian dauden herritarren defentsa bulegoen arteko XXIX. Koordinazio Jardunaldiak antolatuko dituelako, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) XXXIII. Udako Ikastaroen testuinguruan. Koordinazio jardunaldia defentsa bulegoen artean dauden lankidetzaz, kooperazio eta koordinazio harreman onen adierazpenik gorena da. Aurten EHUko Udako Ikastaroen baitan antolatuko dira. Ikastaro horiek kalitate altua eta merezitako ospea lortu dute.

Defentsa bulegoek aitzindari izan behar dugu demokraziaren eraikuntza etengabe, administrazioen funtzionamendua hobetze aldera eta, era berean, politika publikoak hobetzeko giza eskubideen bermea gero eta hobea izan dadila. Eta esleitu dizkiguten funtzioak behar bezala betetze aldera, argi dago defentsa bulegoek une oro administrazioekin batera eta elkarri eraginez jardun behar dugula, baita gizarte erakundeekin eta adituekin ere eta horietako gehienek akademian, unibertsitate munduan, lan egiten dute. Horregatik, egokitzat jo dugu Ararteko erakundeak urtero antolatzen duen Udako Ikastaroa Koordinazio Jardunaldiekin elkartzea. Eskerrak eman nahi dizkiot Udako Ikastaroetako zuzendaritzari eta Euskal Herriko Unibertsitateari ikastaro berezi hori antolatzeko eskaini diguten laguntza apartagatik.

Ikastaro horretan eztabaidatuko dugun gaia hauxe izango da “Familiak eta euren behar eta erronkak egungo gizarte eta ekonomia testuinguruan. Botere publikoen erantzuna”. Defentsa bulegoek Sevillan eta Iruñean burutu duten prestatze-lan bikainak (bide batez eskerrak eman nahi dizkiet Andaluziako eta Nafarroako defentsa bulegoei eta bertako taldeei egin duten lanagatik) jardunaldietako gaia aukeratzen lagundu zuten pisuzko arrazoiak agerian jarri ditu: familia-politikak datozen urteetako gobernantzaren ardatz nagusietako bat izan behar dira, pairatzen ari garen krisi sozioekonomikotik gizarte egoera berri bat edukitzeko aukera emango duten estrategia eraginkorren bidez atera nahi badugu eta ahulenei eskubideak bermatzeko sistema hobetu nahi badiegu. Horregatik, eman diezaiegun bultzada erabakigarria amatasun eta aitatasun aukerei, lanbidea eta bizitza bateratzeari, emakumeen eta gizonen berdintasunari, haurren eta mendekoen zainketari, familia-ereduen aniztasunaren errespetuari eta laguntzak pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran dauden familiei.

Hainbat politika publiko dira familiaren espazioan elkartzen direnak. Gure iritziz, oso garrantzitsua da horiek guztiak familien premia ikuspegi batetik

aztertzea. Izan ere, premiok profil berriak dituzte ohi baino azkarrago aldatzen ari diren gizartean eta lan esparruan.

Geroz eta inklusiboagoa, zuzenagoa eta bidezkoagoa den gizarte baten atzean pertsonen duintasunak eta etengabeko lanak funtsatu behar dute defentsa bulegoetako jarduera. Gure proposamen eta gomendioek, aldi berean, une oro zorrotasuna eta seriotasuna izan behar dituzte oinarri ahal dugun eraginkorren eta baliagarrien izan gaitzen.

Eskerrik asko ikastaro honetan izena eman duten pertsona horiei guztiei. Behin amaituta, hitzaldien eta eztabaiden mailarekin eta atera ditugun ondorioen garrantziarekin gustura zaudetelakoan.

Iñigo Lamarca Iturbe  
Arartekoa